

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

347n. zenbakia

2009 epaila



URTEROKO BATZAR NAGUSIA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2008-2009 IKASTURTEA

BIZKAIERA 41. IKASTAROA IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - urrutizkiña 94 423 53 22 - Bilbao

Asierea: Urrillaren 6'an

41.º Curso de Euskera Bizkaino 3 niveles y conversación

Días: Lunes, Miércoles y viernes, o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de larreategi, 14-2 - Teléfono 94 423 53 22 - Bilbao

Comienzo: 6 de octubre

Urteroko Batzar Nagusia

Asamblea General Anual

Martiaren 26 egunean urteroko
Batzar Nagusia egingo dogu
Lenengo deia: 7' etan eta
Bigarren deia 7,30 etan

GAIK

Aurkespena : Zuzendariak
Urteko kontuak : Diruzaiñak
Urteko ekintzak : Zuzendariak
Batzordekide barriak, ba' legoz
Erreguak eta eskariak

ZUZENDARIAK

El 26 de Marzo celebrará la Asociación
EUSKERAZALEAK su Asamblea General
anual

Primera convocatoria 7,00 tarde
Segunda convocatoria 7,30 tarde

ORDEN DEL DIA:

Presentación : El Presidente
Cuentas del 2008 : La Tesorera
Actividades del 2008 : El Presidente
Nuevos miembros de la Junta si hubiere
Ruegos y preguntas

EL PRESIDENTE

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeita bost euro) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!

Baikortasuna zabaltzeko gaitasuna

“Arrigarria da beste gaietan ain argitsu eta zuur diranak eguneroko naiak orekatzean utsalak izatea”

(O.S. Marden)

Adimen sendoa daukien ezaugarriak azalduko dira emen, beren ibilbidea artez eta gogoz zelan bideratzen daben; aldi berean orekatuak eta eldutasuna dirala.

Azken 50 urtetan ikerketa desbardinak landu dira, osotasun andikoen ezaugarriak bereizi aal izateko: eskura dabenaz bakean eta pozik, era orekatuan, bizi diranak.

Egindako proben emaitzak onetan dira ados: gizabanako orekatu eta elduak normalak dira, xaloak eta neurrikoak, kemen andikoak, ia beti iraupen indartsukoak, jarraipen joera dabe, beren irizpideak dituez eta umore ona, naigabeak jasateko prest, bihotz zabal dira, egunak dakarrena gozatzeko gai eta besteekiko begirunezkoak.



Gaitasun orreik azaletik aipatu orde, zerbait sakonduko dogu gizabanako orekua obeto bereizteko.

Sarritan soina indartsua dabe, giarrak sendo, gibela eta esteak ongi, loaldi sakona eta barritzailea, nekea jasaten dabenak, eta norgeiagoka eta aalegina gogoko dabe.

Adimen maila ona izanik arazoak ez dabez naasten eta orrela bakoitzari jagokon irtenbidean saiutzen dira, taxuzko dana zeazten dakitela.

Itzetan baiño ekintzetan oinarrituak, eta asmo gauzagarriak lantzen dituez. Asmoak egikaritzeko emon bearreko urratsak zeatz finkatzen dabez. Gauzatzera koan, irmo, zuur eta lasai darraie.

Emozio sendotasuna dabe, izaera eldua, iraunkorra, antolatua eta beren aaletara zuzendua, alegintzeko prest, beren irizpideei eta ez besteen esanei jarraitzen dautsena.

Bizitzan buru argitasuna eta jarrera baikorra, aldi berean sentibera eta begirunezko dirala. Bildurrak be mende dituez, erantzukizunak artzeko prestutasuna, arriskuei muzin egin barik. Eskuzabaleko ekintzetara jarriak, baita emon eta partekatzeke.

Borondate finkoa, burugogor izan barik. Izaera kementsua, errotua, bat-batekoa eta saiaturia. Tentaldiak alboratzeko gauza.

Amesteko, irudikatzeke eta neurritz gain txunditzeke gaitasun zabala. Fantasiari bide emoten dautsoe, gozagarritasuna eta seriotasuna tartekatzeke gauza dirala, baita emoziñoak eta burubi-deak.



Norbere akatsak antzemon eta bere gain hartzeko zentzua. Besteei zein norberari jagokonaz, zuzentasun sena.

Egoera zail eta latzetan umore onean irauteko aalmena, dana arazo-bidean jarri barik. Umoreak besteari zein norberari barkartzea aalbideratzen dau. Eta bearreko oreka emoten dau uneoro barneko bakea eta lasaitasuna izateke.

Azkenik, gizabanako orekatuak egunerokoa biziki artzen dau, orainean kokatua dago eta ez dautsie biderik emoten iraganeko gertakizun txarrei oraina zapuzteke, ezta geroaldiaz urduritu eta tematzeke.

Laburbilduz, aal dan neurrian oreka lantzen dabe, bere buruari eta beraiekin arremonetan diranei onurak zabalduz, orekak edatu eta zabaltzeko joera baitu.

(Bernabe Tierno, psikologo eta psiko pedagogo denaren artikulu batetik jasoa)

Agustin Arrien

***Patxi Otamendik euskeratua.**




Maistren itzarmena

Onetiko Itzarmena egiten da andere..... maistrea ta Eskolako Eziketa-Kontseilluaren artean.

Andere Maistreak onartzen dau 1923 ko irallearentik zortzi illabete zear klaseak emotea.

Eziketa-Kontseilluak onartzen dau Andere Maistreak illero 75 sariaz ordaintzea.



Garcia Rivero'ren antxiñako eskola. 1921'gn gitxi gora bera

Andere ados dago:

- I- Eskongai egotea. Maistrea eskonduten bada, ituna bertanbera ta indar barik geldituko da.
- 2- Ezta ibilliko gizasemeakaz.
- 3- Arrastiko 8,00 tik 6,00 ra bitartean bere etxean geldituko da , eskoleari dagokion zereginen bat izan ezik.
- 4- Erri barruko izoztegietatik at ibilliko da.
- 5- Ez dau erritik alde egingo ezegaitik be Ordezkarikontsellu buruaren baimen barik.
- 6- Ez dau erreko zigarrorik. Erretzen aurkitu ezkerok, Itun au bertatik utsean eta indar barik geldituko da.
- 7- Eztau edango garagardoa, ardao ta whiskirik. Itun au erabat utsean ta inder barik geratuko da zerbezea, ardaa edo whisky edaten aurkituko balitz maistrea.
- 8- Es da ibilliko kotxean iñolazko gizasemeakin, bere anai edo aita izan ezik.
- 9- Es da jantziko kolore bizidunagaz.
- 10- Ez dau tintatuko bere illea.
- II- Gitxienez gonazpiko bi erabilliko dauz.
- I2- Ez dau eroango orkatilletik bost zentimetro goragoko jantzirik.
- I3- Gelea garbi eukiko dau.
 - Egunean bein gitxiendik garbituko dau errazagaz.
 - Astean bein gitxienez ur beroagaz garbituko dau solairua.
 - Egunean bein gitxienez garbituko dau arbela.
 - Goizeko 7,00 tan sua biztuko dau, gelea bero egon daiten 8,00 tan umeak eldu orduko.
- I4- Es dau aurpegiaren autsik erabilliko, ezta makillatu, ezta ezpanak pintatu.



Martin Olazar Uriberen

illeta mezan omilia

(Mungian, 2008. 09. 23)



Anai-arreba maiteok:

Gogorra, illuna, garratza da, berez, eriotzea: edozein eriotza, baina, batez be, norberarena eta geuk geien maite doguzan etxekoena ta lagunena. Olantxe izan da orain artean, olantxe izango da beti.

Ezagutu izan dogunok badakigu ze gogorra izan dan gure Martin. Urteetan gora, osasuna ez beti ain ona, baina langile neurri bakoa beti, Eleizearen, erriaren eta euskerearen alde gau t'egun lan egiteko beti gertu egon da.

Gogorra izan arren be, beragan ezagutu dau san Paulok leenengo irakurgaietan esandakoa:

gure bizitzea, berez, makala dala,
edozein aize boladak

astindu eta ondatzeko moduko oial-txabolea.

Gogorra ta errukarria izan dau Martinek bere azken Getsemani Begoñako klinikan: bellegituta, estu ta larri, arterik artu ezinda, eta bere buruari eta lagunei itaunka:

"il egingo naz?"

Egoera orretan, bere borondatez,
pozik eta bakez artu zituan eleizakoak.

Martinek be, bere gorputzean eta gogo-biotzetan ikusi dau ze egokia eta sakona dan Eleizeak azken Kontzilioan esandako au:

*"..Gizonaren bizitzan
ezkuturik ezkutuena eriotzea da.
gizonak sufridu egiten dau neke-minaz
eta bere gorputzaren ondatze gelditu- ezinaz.
Baina bere biotz-minik /arriería zera da:
betiko galduko ete dan biidurra".*

Gaurko ebanjelioan entzun dogunez, olantxe joiazan euren leengo bizimodura Jesusen ikasle biok, Kleofas eta bestea: Mesiaszat euken Maisu maitearen eriotza lotsagarriak lurra jota itxi zituan.



Zorionez, bidelagun ezezagun bat urreratu jake, eta Jesusen berbeak bidean eta Emauseko ogi-zatitzeak gogo-biotzak argitu ta poztu egin deutoez eta euren bidelaguna Jesús Berbiztua dala ezagutu dabe. Eta orra or non doazan barrero Jerusalemenera, gauaren eta beste ezeren bildur barik, Apostoluen artera, Jesús berbiztu dalakoaren barrí pozgarria emoteko...

Zer besterik e, giten dau gure Eleiza Amak, bere seme-alaben eriotzea ospatzen dauanean? Pazko Zuziaren, Jaunaren berbearen eta Eukaristiaren ondoan batzen gaitu, eta Apostoluakandik jatorkun dei zolia iragarten deusku:

"BIZTU DAJAUNA!"

Eta gure gau illunean fedearen izarrak

argi barría biztuten dau,

gure biotz jausi ta garraztuak

adore, gozotasun eta indarra artzen dabez,

eta kristau itxaropenaren pozetan autortzen dogu,

Eukaristi ospakizunaren biotz-biotzean:

"IL ETA BIZTU ZARALA, JAUNA, ZU BARRIZ ETORRI ARTE,
AU DOGU, AU, BARRÍ ONA!"

auxe da gure Don Martin maiteak, fededun eta abade lez,

sinistu, iragarri eta ospatu izan dauana

bere bizitza guztian,

ainbat lekutan, dakizuenez:

Ubiden, Fruizen, Zeanurin, Bermion

eta, batez be, Mungiko parrokia onetantxe

eta Mungialdeko beste parroketan.

Buru argikoa eta asko irakurri ta ikasitakoa izanik,

euskera garbi errikoian zabaitzen eban Jaunaren berbea,

berak ikasi, aztertu, eta biotz barrutik

ain maite eban gure Bízkaiko berbeta jatorrean.

Zabalduz doa gure artean bestaldetik jatorkun eleiz kanta eder bat, gaurko ebanjelioagaz lotuta dagoana:

"Gurekin egon; gurekin, launa,

bear dogu-ta itz egin.

eldu da gaua, ilun-iluna,

gurekin egon, gurekin".

Otoitz ederra, benetan. Baina zuk, Martin, kanta barri au zabaldu aurretik be ezagutzen zenduan Mungialde onetako olerkari fin eta andi baten eskari apaí, sutsu eta kristau itxaropenez betea: "Lauaxeta" gazteak, an Gasteizen ilgo eben aurretxean, Emauseko ebanjelioa gogora ekarri ta egina. Ze otoitz ederragorik, beragaz bat eginda, zuk eta emen gagozan fededun guziok berbaldi onen gailurtzat egiteko?

"Neurekin gel zaitte,/arrats-begi da-ta... Ene Josu maite,
gel zaitte! Neure egun argia
bérantz azkar doa, itzalak jotzen dau
artadi ondoa. Arrats onen otza,
biotza!.

O Bidazti deuna,
sar zaitte neurera, bertan dozu, bada,
maitasun-arrera. Bekidat bizitza
zure itza.

Ta bame guztia
berotan dodala, argí biur bekit
eriotz itzala. Dana jat atsegin
Zurekin".

Karmelo Etxenagusia

Martin Olazar abadearen (gure erritarraren) aldeko iletta-Mezaren azkenean abesturiko BERTSOA.
(Mungiako San Pedro Eleizan)

Artu egizu, zeruko Aita, zeure etxean gure Martin bizi osoa eskeini deutsu lanean ekin ta ekin gure erria maitatzearren zenbat neke eta samin kristau taldeak bizkortu naian ardura ta buruko min zorioneko bizi betea goza daiala Zurekin (2).

Lontzo Zugazagak.





Lekeition

Aide-bonbaketakaz kaltetuak. (Il eta zaurituak)

Anai-arteke guda oldartsua, 1936-Uztailak 18 an. sortu zan .

Gudaldian zear, matxiñazale egakari-iek gudu-lurretik kanpo erasotzeko joera izaten eben, erritarrak izutu ta bildurtuteko asmoagaz. Lergaiak, indar gitxikoak izanaz, asko zabaldu egiten eben euren metrallea.

1936n.

Urriko 22an. aidetik bonbardeatu eben Lekeitio, bonbak jaurtiz, orduen bidetxi-orra eta gaurko egunez Harbitxa kalean 5n dagon zenbakira . Metralleagaz zauritu ta urrungo egunez , Uribarren Palazioan egoan Cruz Rojako Hospitalean , onako auek il ziran:

Maria Arrasate Ajubita, 21 urteko eskongaia, Lekeitiarra, istondo ta sorbaldako zauriekaz.

Miren Munitiz Azkorra, 13 urtekoa, Algorta (Bizkaian), jaioa, buruko azur ausiakaz.


Alberto Iriondo Uncilla, 12 urtekoa, Elgoibar (Gipuzkoan) jaioa, ipurzuluko austurakaz.

Basurtuko Hospitalean, egun berean , 23 an, il zan:

Maria Belen Munitiz Hernandez 8 urtekoa, Lekeitio jaioa, sama ta bizkarreko zauriekaz.

Zaurituta geratu ziran: Begoña Munitiz Azcorra ta Purita Munitiz Hernández.

1936-X-22 an bonba batzuk , aidetik jaurti ebezan "Santakataliñako" Pazkualen basarri



ondoan, gaur egunez Maderas de Lekeitio zurgintza dagon tokira. Etzan egon ilgarririk Urrengo egunean, 19326-X-23, goizez, aide-bonbaketa bat egin eben. Oraingoan Portugañera. Iru bonba jausi ziran, gaur egun Taberna Irlandesa, dagon tokian. Buruko austuragaitik, egun berean il zan, Cruz Rojako Hospitelean, Hipólito Cendoya Aguirre, 39 urtekoa, eskondua, Lekeitio jaioa, ("Martín burusoilla", ez izenez), kañabera-arrantzan ari zala.

Eta bere etxeko balkoian, potontziak konpontzen ebillela, metrallak jo ta zauritu eban Joakin Anacabe Zabala, 67 urtekoa, bermeotarra ta alarguna. Bere etxean il zan 1936-X-29 an.

1936-X-25an. domekaz, arrastiko iru ta erdi inguruen, egazkin batzuk lau bonba jaurti euriesan, persona bi arinki zaurituz.

Ogeita seien (26), astelenez, barrero ekin eutsien bonbaketari, iñor kaltetu barik.

Ogeita bederatzien (29), egunez, sei-zazpi bonba jaurti euriesan, personetan ez baña bai etxeetan kalte arin batzuk egiñik.

Azkenengo iru bonba-eraso oneitan jaurtitako lerkaiak, gaur egun ezeun diran lekutan, zeaztasun osoz ezpada be, jausi ziran: Portuko La Marina, kafetegian


Arranegi Plazan, pelota-frontoiaren ondoan.

Uribarren kaleko 6 ren zenbakidun etxean, bonba bat telletutik barrura sartu eta Jacinto Garamendi Arostegiren lo gelako oian kalteak egin ebazan, bera, une orretan, kanpoan egoala.

José Iñaki de Madariaga Vidal / Lekeitio, 2005-VI-6/

Eskerrak Manuel Arrizabalagari.

Claudio Barroetak euskeratua.




Euskalerrria`ren egia: IV

Erri-askatasuna ta jakintza

Menendez Pidal`tar Ramon`ek esaten dauana berezko aber-zaletasun edo errikotasuna`gaitik:

Pidal`ek Berezko Errikotasuna`gaitik esaten dauana:

"Modernamente en los movimientos secesionistas se concede la mayor importancia a la diversidad de la lengua (I)":"Mientras la cultura tiende cada vez más a la uniformidad universal, se valoriza más la individualidad de multiples culturas menores, representadas por lenguas cuyo desarrollo histórico no puede decirse completo, en comparación con las grandes lenguas culturales (II)":"El vivo interés científico y literario despertado modernamente hacia las lenguas menos estudiadas antes, sirve de apoyo al interés político por las "pequeñas naciones", y éste no aprecia el diferente papel que representan las grandes lenguas hegemónicas y las que no tienen una sustantividad tan firme, por no tener un cultivo tan intenso y original como las otras, ni tan continuado y sin vacíos extensos (III)":"El flamenco, el estonio, el irlandés, el catalán.... vienen a tomar un valor representativo de aspiraciones políticas; lenguas que nunca fueron de cultura, "COMO EL VASCO (V)", hacen desesperados esfuerzos por querer serlo y bastarse así mismas. En suma, se tiende a igualar en la consideración histórica las grandes lenguas de la cultura con las pequeñas y hasta con las antes no existentes como tales (IV)".



GUZURTABIDEA (refutación):

(I) .- "Modernamente en los movimientos secesionistas se concede la mayor importancia a la diversidad de la lengua":

Jakitun onek lerro oneitan, ez dau kontuan artzen edo baztertu egiten dauana da: a).- Berezko izkuntz bakoitza, leiñu edo erri-gizarte ezberdiñen artean, Nortasunezko izkuntza dala, bere jakin-egarriaren bakardadeko aztura-bidean, bizitzari emon eutsoezan adierazpenak, erri-izkuntz orreitan zentzun aundiz, azalduta dagozelako.

b).- Belaun-aldiz Mundu oneitara jaioten garanean, amaren bulerretik xurgatzen dogun bezala, arbasoen izkuntzazko oituraren esabide-eder orreitatik artzen doguzelako bizitz-oneitan bear doguzan zentzunezko baldintzak, orekan eta batez-be bakez bizitzeko.

Adibidez: Oituraren edo eta azturaren legezko-bi-

dean bear doguzan etika edo moral`eko zentzuzko zeaztasunetan.

Erljio arloan: JAINKOA eskertzeko ta BERA`ri egiten dautsaguzan eskaerak bizitz onen izatasuna eukita edo BERA`k ipinita daukazan LEGE-baldintzaren eska-bideak ulertuta, zentzun aundiz aurrera egin daigun.

Jakintza arloan: Bizitzako azturan bear doguzan arlo guztietako ulermenaren Jakintzan, bakandutasunezko trebetasunetik, erreztasunez zentzu ederrenean aurrera egin daigun eta abar.

Eta aundienetariko bat: Gure Mundu oneitako agerkeran, belaunez belaun beragandik artzen doguzelako daukaguzan izatasunen izaeran: Izkuntz, izena ta abizen guztiak, daukagun NORTASUNA beragandik artzen dogulako, bizitz oneitan "ZER" edo "NOR" JAINKOA`k gure ARIMA`i emon dauskun aukeran, gure borondate-on edo txarrean bizitzeko.

Bestela begitu: Gure arbasoak bizitz oneri emon eutsoen adierazpeneko erantzuna noraiño eldu zan, eurak izkuntzaren geneakaz batera "JAINKOA`ri BEGIRA...., LEGE-ZARREA`n OITURATU EBEZAN eta ASKATASUNA`ren DEMOKRAZIZKO SIÑISMEN EDERRA`k" emon euskuezan. Orain Espaiño`ak, euren oldozmeneko gogoetan daukiezan sinisteakaz aurrera egiten ba-dabe, mailla orreitera sekula ez diranak elduko, bereztasunaren bideagaz ez ba-dira alkartzen.

Mundu onetan: Ez da au benetako....., edo "BEREZTASUNA`ren LEGE ordezkotzan artzen diran benetako ERRI-JAKINTZA`ren JENDEKUNTZA`k ?".

Izkuntza`k eta Euskerazko izkuntz-zaarrak batez-be, Berezkotasunaren zentzu-an emoten dauskuelako izatasunaren NORTASUN`ak, orreik dira jendekuntzazko izkuntzak (idiomas de cultura)

eta Pidal`ek: "Sasi-jauntzaren guda-beartasunekaz", euren bereztasunezko legean ez dautsielako urbiltzen itzi...., "BEREIZTALDIKOAK (secesionistas) DIRALA ESAN ?".

Bereztasunezkoak..., zergaitik babesten dabez EUSKALERRIA-LEZ euren izkuntzak, bereiztaleak izateko, ala..., jakintzazko aztura-bidean milla urte askotan lortu daben SINISMENDUNEZKO NORTASUN-DEMOKRATIKOAK zaintzeko ?.

JAINKOA`ren aurrean, NOR-BEREN ardurak NOR-BERENAK dira !! Ez da danontzat bardiñ...., BEREN LEGE ori ?

Liburu au 1.957`an egin eban eta geroago izan zalako (irurogei`ko amarkadan) ez zan konturatu-ko Euskereagaitik (berak maite ebala esaten eban) esango ebanagaz: "Gaztelera`ri 1.971 Euskal-itiz sartu eutsoezala zentzuan sendotzeko". Zeiñ da

JENDEKUNTZAZKO-IZKUNTZA gaztelera edo EUSKAREA ?.

Oraiñ ikusiko dogu, Pidal`ek zeitñtzuk izkuntzai esaten dautsen, JAKINTZA-AUNDIKO izkuntzak dirala.

(II).- *"Mientras la cultura tiende cada vez más a la uniformidad universal, se valoriza más la individualidad de múltiples culturas menores, representadas por lenguas cuyo desarrollo histórico no puede decirse completo, en comparación con las grandes lenguas culturales:*

Mundu onetako JENDEKUNTZAK, BEREZTASUNEZKO-LEGE`ak bideratzen gaituen lez, leen: "Gai`ezko Mundu au danoentzat dalako". Eta bigarren: Daukan LEGE-GAI-BAKAR onek oiñarri baten lotu egiten gaitulako ERRI-GIZARTEAK Beti !! arrazoidun-giza lez joango dira alkarren arremenetako itzarmenean urbiltzen, Mundu onen ulermeneko garaipena antza, gure gai`tutako ARIMA guztien garaipena izan bear dalako.



Baiña, zer gertatzen da...., gure abere-legean urbiltzeko edo batzangotzeko egiten doguzan alegiñekin?: "Bereztasunezko legeak alboratu ezker, gure aberetasunezko legean agertzen garela" eta lege orreik abere-legeak diran lez, indarraren odolkerizko sarrasketan (exterminio, degollina) egiten doguzela, norkeriaren naikerizko arrazoi-ustel orreik garaipentzeko.

Mundu oneitan, Erromatarren`gandik gaur arte egin bear izan diran gauza guztiak, indarraren ta odolkerizko aberetasunaren jendekuntzan (civilizaciòn) egin dira, sasi-aunditasunezko arrokeriz eta diru-lilluralekeriaren amets, Mundu onek gizarteentzat daukazan balio-on guztiak euren kontrol`pean edo agintaritzan eukiteko.

Arazoi-bako ekintza orren bidez, Mundua bera !! lurralde-nagusietako (continentes) aurkari edo eta adizkide-ezin diran jendekuntz-aundietan banandu da.

Pidal`ek, nor-geiagoko ekintza orreri bidez lortzen diran batzangotasunezko menperatzailetasunak deitzen dautso urbiltasuna?. Norkerien edo arrazoi-bako biltze orreik, gaur orain-be gudarako eratzen dabizenak, Mundu au guda-nagusi bateko arrisku edo galbidean kokatuta izten gaituenari?. Ekintza ori, asieraren gabekotasunezko arrazoiaren ezberdintasuna batzea baiño ez da, mamu-tzar aundien antzera, goitik-bera keiñuka daukaguzenak noz iruntsiko.

Ez dogu bear Pidal`en arrazoitasunik urbiltasun orreik ikusteko, JAINKOA`k Mundu onetarako bereztu ebazan LEGE`ak erakutsi ta bideratzen gaituelako. Sasi-jaukotasunik gabe baiña !! GURETATIK IÑORK EZ DALAKO NOR !! Mundu oneitan bere oldozmeneko legerik sortzeko. Ala BERE`ak, ez izango ete-dira naikoak?

Eta..., zeri esaten dautso Pidal`ek: "Jakintza`ren mailla aundiko izkuntza?".

Erdi-ugarte oneitatik, Ameriketara eta Filipinas`era kolonigille edo erri-irasleen arpegi-ordezkatzen (disfrazado) mozorrotuta joanda: Euki ebezan izkuntz, giza-bereiztasunean nastu, erlijio ta oiturak espataren indarragaz buruak zabaldu ta barruan katolikotasunezko ikasbideak gazteleraz nai-ta nai-ez sartu, urrezko mozkin guztiak lapurtu eta gaur daukien gaztelerazko izkelki txarragaz eta nortasunik-gabe bertan itxita....., eurak ainbeste diralako, gaztelera orreri esaten dautso JENDEKUNTZAZKO-IZKUNTZ NAGUSIA?.

Ori !! len esan dogun okerra edo korapilloa, aundiagoa egi-tea baiño ez da.

Pidal`ek, edestian zear egin zan lez, bereztasunezko erri-gizarteak kontuan euki gabe, Menperatzailetasunaren jendekuntzazko (civilizaciòn) arrazoi-ustelari emoten dautso aintza guztia, sasi-jainkotasunaren egizko andi-mandikerian (boato), danon ardurak eurak artuta egin ziran eta egiten diran norkerizko guzur onei.

Danoren ardurak euren eskuetan eukinda...., danoren lanak eurak egiteko?.

Eurak-be ez dabe sinisten ori. Ala..., erri-bereiztasunaren bidez bakoitzak daukazan ardurak euren kontrolpeko ta aginpideko eskuetan eukita...., espetxe ta zigorraren keiñuagaz bete daiguzan?.

Ez dira konturatuko...., orain 2.761`urte egon zan berezko leiñuen auzotasunezko antolamendura joan bear dogula, andik asi-ta BEREZTASUNEZKO LEGE-BAKARRA`ri ondo oratuta, Erromatarrak zirriborrotu ebena eta gaur arte guzurrean ta oker-bideratuta datozen arrazoi-gauzak, zuzendu dagiguzan?.

Ez ba-gara konturatuten, etorkizunezko ekaiztsu denborak daukaguz aurretik.

Atutxa`tar Paul

Zornotza`n 2.008`An epailla`ren 31`n





Etxebarria

Etgiz izen ederra
Etzri onek daukana
biotz erraietan,
benetan pozgarria
barria izatea
errain bikaiñetan.

Etuskal izkuntz bikaiñenez
indartu bizia
edertasunian,
jakiturizko izkuntza
dauka Etxebarriak
biotzen erdian.

Etgiz ezilkorra da.
izkuntz aiñ leiñargia
bizitza maitean,
argiz eta biotzez
ondua da izkera
euskera beinean.

Ettxerik etxe doa
izkuntz zoragarria
bizia bikaintzen,
munduko lorea da
euskara aintzatsua
biziak alaitzen

Etta zu, Etxebarria,
erriz bikaiña zara
zeure izatean,
bidebarri luzea
begiz bikaiñ daukazu
otseintza bidean.

EtMendi zoragarria
daukazu aurrez aurre
omen ederrian,
EtEuskadiko lorea
maxa aintzatsua da
euzko lurraldian

Paulin

olerkia



Itxaropena galdua

Itxaropen galdua
 norantz zoaz biotza,
 beti ilunetan sarturik,
 etengabeko oztasunean,
 eguzki-bero gaberik,
 itsumenaren osoan.



Itxaropena galdua
 norantza zoaz biotza,
 betiko bakardadea
 ez da laguntzaile ona,
 zure barrura begira
 ataratzeko zaborra.

Itxaropena galdua
 norantza zoaz biotza,
 non dago zure argia,
 pozbidea non daukazu?
 beti begiak itxita
 zelan aurkitu bidea?

Palmi Merino

Euskaldun barrientzat

Zazpi erruak



Ikasten

	4	8		2	1		6	
7		6						
6	3			5		9		
9			6		2			8
		7		1			4	6
1	7				8			
2			1			3		7
	6		7	3		2	8	

1	8	2	5	3	7	6	9	4
7	9	3	6	4	1	5	8	2
4	5	6	8	2	3	7	1	9
6	4	5	1	3	9	7	2	8
8	5	4	6	7	2	1	3	9
6	3	1	8	5	4	9	7	2
3	6	1	4	9	7	8	1	3
5	2	4	6	8	3	9	1	7
9	4	8	5	2	1	7	6	3

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzekodiru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

1,20 euro

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²